



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO OTSAILAREN 23AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Otsailaren 23an, arratsaldeko 17:15etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Santos Etxegia, eta Julen Beunza

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai, M^a Mar Ansorena eta Ricardo Arangoa.

17:15etan alkateak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Industria gunea garatzeko, lurren jabetasunaren inguruan Udabeko Beramendiko kontzejuarekin sinatutako hitzarmena berrestea.

Alkateak azaltzen du notaritzan industriaguneko lurren eskriturak egiten ari direla eta eskatutako dokumentazio bidali ondoren, Udabe Beramendiko kontzejuarekin sinatutako hitzarmena barne, eskatu dutela hitzarmen hau Basaburuko udaleko batzarrak berrestea.

Alkateak gogoratzen du hitzarmen honen bidez, kontzejuak eta udalak adosten dutela industriagunea egiteko beharrezkoak diren lursail eta azalera kontzejuak udalari ematea ondoren udalak industriaguneko urbanizazio obrak egiteko eta lursailak esleitzeko. Kontzejuak lurren zesio honengatik 2007an udalak berriutako kaleak jaso zituen.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte hitzarmenaren xedeak eta aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Industria gunea garatzeko, lurren jabetasunaren inguruan Udabeko Beramendiko kontzejuarekin sinatutako hitzarmena berrestea, beharrezko ondorioak izan ditzan.**

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 17:45 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.